



GIZAPEDIA

gizapedia.hirusta.io

BATEZ BESTEKO HELTZE-AROA

Author: Josemari Sarasola

1 Definizioa eta motak

Batezbesteko heltze-aroa enpresa baten jarduera-zikloaren iraupena da, enpresa industrial baten kasuan lehengaiak edo salgaiak erosi edo ordaintzen dituen unetik, bezeroek ordaintzen dioten arte, aktibo korrontean inbertitutako dirua berreskuratzeko igarotzen den batezbesteko denbora alegia. Batezbesteko heltze-aro laburra izatea komeni da, horrela enpresaren finantzazio-beharrak, lehengaiak erosi direnetik bezeroei kobratu arte, txikiagoak baitira. Heltze-aroa betetzen den bakoitzean, errotazio bat gertatu dela esaten da, lehengaiak erosi eta azkenean bezeroei kobratu ondoren, enpresaren jarduera-zikloa abiarazteko moduan delako enpresa beste behin ere. Urtean zenbat eta errotazio gehiago gertatu, hainbat hobe, enpresak inbertitutako dirua azkar berreskuratuz eta mozkinak jasoz, negozioa maizago egiten duelako. Bestalde, batez besteko heltze-aroa enpresaren berezko epe laburra eta epe luzea bereizteko erabil daiteke: epe laburra batezbesteko heltze-aroa adierazten duen denbora baino laburragoa, eta epe luzea hura baino luzeagoa.

Bi heltze-aro bereizi ohi dira: heltze-aro ekonomikoa eta heltze-aro finantzarioa, azkeneko hori kutxa-zikloa ere deitua. Heltze-aro ekonomikoa enpresaren jardueraren zikloaren iraupena jasotzen du, lehengaiak edo salgaiak erosten direnetik, enpresaren salmentak kobratu arte. Heltze-aro finantzarioa kalkulatzeko, berriz, heltze-aro ekonomikoari enpresak bere hornitzaileei ordaintzeko behar duen denbora kendu behar zaio.

Heltze-aro ekonomikoa beti positiboa da. Heltze-aro finantzarioa, ordea, negatiboa izan daiteke, enpresa komertzial batean hornitzaileei enpresako bezeroek ordaindu eta gero ordaintzen zaienean.

Beste alde batetik, heltze-aroaren kalkulua ezberdina da enpresa komertziala edo industrialia den:

- enpresa industrialia bada, heltze aro ekonomikoa kalkulatzeko lau epe hauen batura kalkulatu behar da: izakinak biltegitratuta dauden denbora, ekoizteko batezbesteko denbora, saltzeko batezbesteko denbora eta bezeroei kobratzeko batezbesteko denbora.
- enpresa komertziala bada, heltze aro ekonomikoak enpresak salgaiak saltzeko behar duen batezbesteko denbora gehi bezeroei kobratzeko behar duen batezbesteko denbora da;

2 Kalkulua

Enpresa industrialen kasuan honela kalkulatzen da heltze-aroa osatzen duten epeetako bakoitza:

- hornidura-epea = $\frac{\text{izakinen batez besteko biltegiko balioa urtean zehar}}{\text{izakinen urteko kontsumoa}} \times 365$
- fabrikazio-epea = $\frac{\text{fabrikazio bideango produktuen stock-aren batez besteko balioa urtean zehar}}{\text{urtean ekoiztutako produktu bukatuen kostua}} \times 365$
- salmenta-epea = $\frac{\text{produktu bukatuen stock-aren batez besteko balioa urtean zehar}}{\text{urteko salmentak kostu-prezioan}} \times 365$
- kobratze-epea = $\frac{\text{bezeroen batez besteko saldoa urtean zehar}}{\text{urteko salmentak salmenta-prezioan}} \times 365$

Heltze-aroa aurreko epe horien batuketaz kalkulatzen da.

Enpresa komertziala bada, berriz, epe partzial hauen batuketaz kalkulatzen da batez besteko heltze-aroa:

- salmenta-epea = $\frac{\text{salgaien batez besteko biltegiko balioa urtean zehar erosketaren prezioan}}{\text{salgaien erosketak urtean}} \times 365$
- kobratze-epea = $\frac{\text{bezeroen batez besteko saldoa urtean zehar}}{\text{urteko salmentak salmenta-prezioan (BEZ barne)}} \times 365$

Batez besteko heltze-aroaren barnean *ekoizpen-ziklo* deitzen dena ere badago, hornidura-, fabrikazio- eta salmenta-epea biltzen dituena.

Heltze-aro finantzarioa kalkulatzeko, berriz, aski da heltze-aro ekonomikoari hornitzaileen ordainketa-epea kentzea:

$$\text{ordainketa-epea} = \frac{\text{hornitzaileen batez besteko saldoa urtean zehar}}{\text{urteko erosketak (BEZ barne)}} \times 365$$

Heltze-aroa murrizteko aukeretako bat ordainketa-epea murriztea da. Hain zuzen, hornitzaileek haien erositakoa ordaintzeko eskaintzen diguten gerorapen-egun gehigarri bakoitzeko egun bat murriztuko da heltze-aroa. Hornitzaileek enpresaren jarduera finantzatzeko eskaintzen duten ordainketa-gerorapen horiei *hornikuntza-kreditu* deitzen zaie.

Langileek enpresaren heltze-aroa murrizten eta beraz enpresaren finantza-beharrak estaltzen ere laguntzen dute, haien soldata lan egin ondoren ordaindu ohi denez.

3 Batez besteko heltze-aroa eta errotazioak

Jarduera-zikloko aktiboetako bakoitzak (lehengaiak, bideango produktuak, produktu bukatuak eta bezeroen kontua) hainbat errotazio edo bira egiten ditu urtean zehar. Adibidez, urtean lehengaien biltegia lau aldiz bete eta agortzen bada, jardueran erabiltzeko, lehengaien errotazioa 4 dela esango dugu.

Honela kalkulatu dira errotazioak enpresa industrialen kasuan:

- lehengaien errotazioa $= \frac{\text{izakinen urteko kontsumoa}}{\text{izakinen batez besteko stocka-aren balioa urtean zehar}}$
- bideango produktuen errotazioa $= \frac{\text{urtean ekoizitako produktu bukatuen kostua}}{\text{bideango produktuen stocka-aren batez besteko balioa urtean zehar}}$
- produktu bukatuen errotazioa $= \frac{\text{urteko salmentak kostu-prezioan}}{\text{produktu bukatuen stocka-aren batez besteko balioa urtean zehar}}$
- bezeroen errotazioa $= \frac{\text{urteko salmentak salmenta-prezioan}}{\text{bezeroen batez besteko saldoa urtean zehar}}$

Errotazio horietatik batez besteko heltze-aroa osatzen duten epeetako bakoitza kalkula daiteke. Enpresa industrialen kasuan:

- hornidura-epea $= \frac{365}{\text{lehengaien errotazioa}}$
- fabrikazio-epea $= \frac{365}{\text{bideango produktuen errotazioa}}$
- salmenta-epea $= \frac{365}{\text{produktu bukatuen errotazioa}}$
- kobratze-epea $= \frac{365}{\text{bezeroen errotazioa}}$